


IES JOSÉ MIGUEL BARANDIARAN BHI



KONTINGENTZIA PLANA (2020-2021) ETA KURTSOKO ESZENATOKIAK

AURKIBIDEA:

1. **SARRERA**
2. **HELBURUAK**
3. **OSASUN NEURRIAK**
 - a. **HIGIENE PERTSONALERAKO NEURRIAK**
 - Eskuen higieua ura eta xaboiak
 - Musukoaren erabilpena derrigorrezkoa izango da ikastetxean
 - Higieua pertsonalerako materiala
 - b. **HIGIENE NEURRIAK IKASTETXEAN**
 - Garbiketa eta desinfekzioa
 - Ikastetxearen aireztapena
 - Hondakinen kudeaketa
 - Ikastetxea garbitzeko materiala
 - c. **SEGURTASUN NEURRIAK**
 - d. **LANGILE/IRAKASLE/IKASLE SINTOMATIKOA EDO KASU BATEKIKO KONTAKTU ESTUA**
4. **LAN ANTOLAKETA: IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUMA**
 - a. **OROKORRA - ESZENATOKI GUZTIETAN**
 - Ikasleen jarraipena
 - Programazioak
 - Formakuntza
 - Euskara
 - Koordinazio bilerak
 - b. **A ESZENATOKIA**
 - Sarrerak eta irteera mailakatuak
 - Geletan
 - Komunetan
 - Patioan
 - Irakasle Gela
 - Jantokia
 - c. **B ESZENATOKIA:**
 - Eraikin bietan
 - Beheko eraikinean
 - Goiko eraikinean
 - d. **D ESZENATOKIA**
 - Bideodeiak
 - Ikasleekin komunikazioa
 - Gurasoekin komunikazioa
5. **LORTUTAKO HELBURUEN EBALUAZIOA**
6. **LAGUNTZA ETA JARRAIPEN BATZORDEA**

1. SARRERA

2020ko udaberriak aurrekaririk gabeko aldaketak eragin zituen gure gizartean eta hezkuntza-sisteman. Gure ikastetxean, 2020-21 ikasturtea espero dugun heinean, aurreratzen dugu SARS-CoV-2 – COVID-19 eragiten duen birusak – zirkulatzen jarraituko duela. Ikasleak, irakasleak eta ikastetxeko beste langile batzuk infekzioa transmititzeko eta hartzeko arriskuan egongo dira. Beraz garrantzitsua da eskola-komunitateko kide guztiek neurriak hartzea transmisioa murrizteko.

Bestalde, ikasle eta familia asko arazo ekonomiko gehigarriak, isolamendu soziala eta estresagarriak izaten ari dira eta egoera horren aurrean Hezkuntza-Komunitateak neurriak hartu behar ditu. Ikastetxeak komunitateen osagai garrantzitsuak dira eta izugarritzko eragina dute ikasleen eta familien osasunean, ongizatean, hazkunderan eta garapenean.

Bukatzeko, hezkuntza-sistema indartsua izatearen beharra dugu ikasleei eta komunitateei eraginkortasunez laguntzeko. Ikasleek kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea dute, bizi dugun egoera edozein dela ere. Azken hilabeteek online hezkuntzak dakartzan erronkei buruz ikasteko balio izan digute, eta prozesuak hobetzeko aukera ematen digu.

Kontingentzia Plan hau hainbat dokumentu kontuan hartuta sortu dugu:

- Hezkuntza Sailaren protokoloa
- Kurtso Hasierako Ebazpena
- Lasarteko Berritzeguneko ikastetxeentzat laguntza dokumentua
- IES Botikazahar BHiko Kontingentzia-Plana
- Zuazola-Larraña BHiko Kontingentzia-Plana

Garrantzitsua da kutsatzeko arriskuak minimizatzea eta ahalik eta azkarren eta osasunerako segurtasun-berme handienekin ikastetxeetako ohiko jarduerara itzultzea. Hori lortzeko, ezinbestekoa da irakasle guztien, administrazio eta zerbitzuetako langileen, ikasleen, gurasoen, legezko tutoreen eta ikastetxearekin harremana duten pertsona guztien erantzunkidetasuna.

Plan honetan, 3 eszenatoki posible aurreikusten ditugu:

- a. “Normaltasun“ egoeratik hurbilago dagoen bat, hau da, zentroen ohiko funtzionamendutik hurbilago dagoena. **(A eszenatokia)**
- b. Egunerokotasun horretatik urrunen dagoena izango litzateke, konfinamendu zorrotzeta eta irakaskuntza presentzialaren ezintasuna ekarriko lukeena **(D eszenatokia)**
- c. Aurreko bien bitartekoa izango litzateke, hau da, eszenatoki mistoa, irakaskuntza presentziala baina mugatua eta online irakaskuntzarekin konbinatua **(B eszenatokia)**

Eszenatoki horiek aurrerago zehaztuko ditugu.

2. HELBURUAK

a. LEHENTASUN IRIZPIDEAK:

- Osasuna bermatzea (fisikoa eta afektiboa).
- Ikasle guztiek klaseak jarraitzeko baliabideak izatea (ekipoak/konexioa)
- Irakasleek klase erdi-presentzialak eta urrutikoak emateko metodologia egokitzea.
- Ikas komunitate osoaren komunikazioa bermatzea (ikasle/irakasle; irakasle/familiak, irakasleen arteko koordinazioa...)
- Premia bereziak dituzten ikasleen diagnostikoa egin eta indartze neurriak diseinatu (suspentsoak, gutxienezko mailan ez dutenak (batez ere 1.batxilergora datozen ikasle berriak).
- Ikasleek dekretuak markatzen dituen konpetentzia guztiak lortzea

3. OSASUN NEURRIAK

A. HIGIENE PERTSONALERAKO NEURRIAK

- **Geletan lehioak maiz zabalik egongo direla kontuan izango dugu gure jantziak aukeratzera, batez ere, neguan.**
- **Eskuen higieua ura eta xaboiak**
 - Eskuen higieua ura eta xaboiarekin egitea gomendatzen da.
 - Garbiketa errazteko eraztunak, lepokoak etab saihestu.
 - Atzazalak garbi ditugula ziurtatuko dugu.
 - Gomendagarria da eskuak maiztasunez garbitzea eta bereziki:
 - Eztul egin ondoren.
 - Doministiku egin ondoren.
 - Mukiak jo ondoren, sudurra edo ahoa ukitu ondoren.
 - Bazkari bakoitzaren aurretik eta ondoren.
 - Komunera joan ondoren.
 - Jolastu edo objektu arruntak ukitu ondoren.
 - Bereziki zikinak daudela ikusten denean.
 - Eskuak garbitzeko prozedura ondorengo da
 - Lehenengo eskuak urarekin busti.
 - Xaboi aplikatu eta eskuak igurtzi hatzen artean eta azazkalen azpian garbituz.
 - Ondoren txorrotako ur askorekin urberitu.
 - Eskuak lehortu erabilera bakarreko zapi batekin.
 - Aipaturiko erabili bakarreko zapiak txorrota itxi.
 - Erabilera bakarreko papera, pedala eta estalkia duen kubo batera bota, ahal bada, plastikozko poltsa duena. Ondoren kubo itxi.

- **Musukoaren erabilpena derrigorrezkoa izango da ikastetxean**
 - Gizarte-urruntzea sustatu eta errespetatu behar da. Ikasle guztiek, irakasle guztiek eta ikastetxeko gainerako langileek maskarak erabili beharko dituzte ikastetxeko espazio osoan.
 - Etxean ere, maskararen erabilera egokia sustatuko dugu.
- **Higiene pertsonalerako materiala**
 - Ikastetxeak higiene pertsonalerako material hau eskura izango du:
 - Eskuak garbitzeko xaboa, banakako dispentsazioduna izango da (komunetan egongo da)
 - Oinarri alkoholikoko prestakinak. (Gela guztietan egongo da, baita ikastetxeko sarreretan ere).
 - Soluzio hidroalkoholikoa
 - Erabilera bakarreko paperezko eskuoihalak (gela guztietan egongo da).
 - Estalkidun kuboak (gela guztietan)
 - Plastikozko xabor poltsak. (honetaz garbitzaileak arduratuko dira).
 - Musukuak ere eskuragarri izango dira ikastetxean pertsonaren batek behar izanez gero.

C. HIGIENE NEURRIAK INSTITUTUAN

SARS-CoV-2 koronabirusaren kasu batek ez tul edo doministiku egitean kanporatutako listu-tantatxoak hurbil dauden pertsonen ahoarekin edo sudurrearekin kontaktuan jar daitezke, edo azaleretan geratu (mahaiak, ateen heldulekuak, objektuak, jostailuak ...) eta bertan ordu batzuk mantendu. Horregatik, garrantzitsua da ikastetxean higiene neurriak mantentzea, indartzea eta prozedura berriak ezartzea.

- **Garbiketa eta desinfekzioa**
 - Ikastetxeko objektuak eta ingurumen-gainazalak garbitzea eta desinfektatzea lagungarria da haietan egon daitezkeen birusak desagerrarazteko, birusaren transmisioa minimizatzea ahalbideratuz.
 - Garbiketa prozeduretarako jarraibideak normalean egiten direnak dira.
 - Konposatu kloratu diluituak (ur hotzetan edo epelean) erabiliko dira.
 - Mahaietan edo objektuetan utzitako hautsa urarekin eta xaboiarekin kendu beharko da, eta ez trapu lehorrekin.
 - Mopa eta fregona erabiliko dira (erratzarik ez)
 - Informatika-gelan, ekitaldi-aretoan edota gimnasioan garrantzitsua da higiene neurriak areagotzea; izan ere; egunean zehar haietatik igarotzen diren ikasleen joan-etorri handia da.
 - Garbiketa ikastetxe osoan egingo da, gutxienez egunean behin. Honakoetan arreta berezia jarriko da:
 - Mahaiak eta aulkiak.
 - Ateen heldulekuak.
 - Argiaren etengailuak, telefonoak, tinbreak.
 - Gela partekatuak (informatika, ikus-entzunezkoak ...)
 - Ordenagailuetako teklatuak eta saguak.
 - Komunak.

- Geletako mahaien arteko espazioa urrundu da (ahal den espazio handiena utzi da haien artean)
- Gela guztietan gainazalak garbitzeko produktua egongo da (papera ere). Irakasle bakoitzak dagokion mahaia garbituko du lanean hasi aurretik eta bukatu ondoren.
- **Ikastetxearen aireztapena**
 - Egunero aireztatu behar dira ikasgelak, jantokiak, komunak eta ikastetxeko gela guztiak.
 - Eskolak hasi aurretik eta ondoren irekiko dira ikasgeletako leihoak, baita saioen arteko aldaketan ere.
- **Hondakinen kudeaketa**
 - Ohiko hondakinen kudeaketa mantenduko da. Hondakinen kudeaketa egiten duten langileek. beti eskularruak erabil behar dituzte.
 - Agenda 30eko arduradun eta ekodelegatuekin batera gai hau jorratuko da geletan.
- **Ikastetxea garbitzeko materiala**
 - Komertzialki eskuragarri dagoen edozein xaboi edo detergente erabil daiteke.
 - Garbiketarako eskularruak.
 - Lixiba.
 - Garbiketarako ohiko produktuak.

c. SEGURTASUN NEURRIAK

- Irakasleok eta ikasleek etxetik maskara jantzita ekarriko dugu.
- Irakasleek eta ikasleek etxean egiaztatuko dugu sukarrik ez dugula.
- Ikastetxean badaezpadako maskarak eskuragarri izango ditugu guztiok.
- Segurtasun saileko jarraibideak errespetatuko ditugu beti.
- Bizikletak aparkatzeko burniak jarriko dira eta bizikletaz ala oinez etortzea sustatuko dugu ikasleen artean.

d. LANGILE/IRAKASLE/IKASLE SINTOMATIKOA EDO KASU BATEKIKO KONTAKTU ESTUA

COVID19-rekin bateragarriak diren sintoma argiak dituzten ikasleek, irakasleek eta gainerako langileek ez dute ikastetxera joan beharko. Kasu berean egongo gara sintoma hauek duen pertsona batekin harreman estua izan badugu. Zalantzarik edo sintomarik izanez gero, komeni da ikastetxera joan aurretik tenperatura hartzea. Irakasleek ikasketa buruari emango diote horren berri, ikastetxeko langileak idazkariari eta ikasleek tutoreei edota ikasketa buruari. Erregistro bat eramango da (lan arriskuen arduraduna)

Langileak, ikasleak edota irakasleak **ikastetxean** Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak (37° gaineke sukarra, eztul lehorra, aire-gabeziaren sentrazioa eta ondoez orokorra) baditu:

1. Bere egoeraren berri emango dio zuzendaritza taldeari (ikaslea lehenengo dagokion irakasleari)
2. Ikaslea isolatuta egongo da institutua utzi arte.

3. Ikastetxea utzi eta etxera joango da. Ikasleen kasuan familiari telefonoz (zuzendaritza kideak) deituko zaio egoeraren berri emateko.
4. Familia-medikuari deituko dio telefonoz, eta haren jarraibideak beteko ditu.
5. Zuzendaritza-taldea arduratuko da Hezkuntza Saileko prebentzio-zerbitzuari edota Osasun Sailari (aginduak esaten duen arabera) gorabehera guztien eta Covid 19 kasuaren berri emateaz, bai eta kasu bakoitzean ikastetxean izan ahal ziren kontaktuen berri emateaz ere.

Orokorrean:

1. Musukoaren erabilpena derrigorrezkoa (kontrako agindua egon arte).
2. Sintomak dituztenak etxean geldituko dira eta tutoreari edota ikasketa buruari esango die. Kasu berebanean egongo dira sintomak dituen pertsona batekin kontaktu estua izan dutenak.
3. Gela guztietan hidrogela egongo da eta gainazalak garbitzeko produktua (papera ere). Ikasle bakoitzak bere mahaia garbituko du erabili ondoren.
4. Ekipo informatikoak erabili ostean erabiltzaile bakoitzak garbituko ditu.
5. Saio bakoitzaren ostean leihoak irekiko dira gutxienez 3 minutu.
6. Gela bakoitzean Covid-delegatu bate egongo da (ikasleak partehartze aktiboa izan ditzaten). Ikastetxeko Segurtasun arduraduna izango da talde horren koordinatzailea.

4. LAN ANTOLAKETA: IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUMA

OROKORREAN - ESZENATOKI GUZTIETAN

a. Ikasleen jarraipena

- Irailean diagnostikoa egingo du irakasle bakoitzak bere taldearena eta ikasle bakoitzarena. Adi PIREen jarraipenari irailaren 18rako epea.
- Irailean hasierako ebaluazioa burutuko da familiei helarazteko.
- Mintegi bakoitzean ikasleen gabeziak betetzeko neurriak erabaki.
- Covid kasu sensibleak helaraziko zaizkie irakasleei iraileko lehen asteko koordinazio batzarretan.
- Osasun emozionalari adi, materialak tutoretzetan landuko ditugu irailetik hasita.
- Lehenengo astean tutoreek ikasleen konektibitatea egiaztatuko dute eta gabeziez informatuko diote zuzendaritzari.
- Arreta bereziko ikasleek jarraipen zuzena izango dute, tutore, ikasketa burua eta orientatzailearen aldetik.

b. Programazioak

- Mintegi bakoitzean oinarrizko alderdiak definitu programazioan.
- Aurreko urteko memoriari begiratu programazioa egin aurretik. Adi zer geratu den ikusi gabe.

c. Formakuntza

- Iraileko lehen astetik hasita IKTKoen formakuntza jasoko dugu irakasleok eta familiek, balizko itxialdi batean beharko genituzkeenak aurreikuste aldera.
- Ikastetxe gisa, itxialdi batean lehenetsiko ditugun plataformak, tresnak eta neurriak adostu eta finkatuko ditugu.
- Lehenengo asteetan ikasleei formakuntza emango diegu, itxialdia gertatuko balitz, norberak erabil zitzakeen tresnen inguruan. Irakasle bakoitzak bere ikasleei.

d. Euskara

- Euskararen inguruan indartze neurri kolektiboak erabaki eta programazioetan islatu behar dira. Ikasleek ahozko “input”-a jasotzeko aukerak dituztela bermatzeko:
 1. Irakurketa Plana
 2. Morillo formakuntza
 3. Normalkuntza
 4. Barandiaran irratia
 5. Euskararekiko jarrera positiboa sustatzea

e. Koordinazio bilerak

- Hiru eszenatobietan koordinazio-bilera guztiak mantenduko dira (zuzendaritza bilera, PBa, mintegi-bilerak, tutoreen bilerak, klaustroak...)
- Klaustroak online izango dira edozein kasutan ere.
- Ebaluazio-saioak presentzialak izango dira ahal den neurrian eta Goikoan egingo dira maila guztietan.

f. Gorputz Hezkuntza eta Aldagelak

- Aldageletan ikasleen presentzia murrizkeko asmoz, ordutegiak egiterakoan Gorputz Hezkuntzako 2 orduak jarraian jartzen saiatu gara (bai DBHn eta Batxilergoan), ahal den neurrian.

A Eszenatokian - Presentzian

a. Sarrerak eta irteera mailakatuak

- **Eraikin bietan:**
 - Igotzeko norantzan gure eskumatatik igoko gara ikasle eta irakasleok eta jaisteko norantzan ere berdin, eskudela ikutu barik ahal dala.
 - Igotzeko eta jaisterako orduan elkarren arteko 1,5 distantzia mantenduko dute ikasleek.
 - Sarreretan eta geletan ateak zabalik egongo dira kontaktu-puntuak mugatzeko. Klase tarteetan ateak irekitzeko ukondoa erabiliko dugu.
- **Beheko eraikinean:**

- Larrialdi eskailerak ohikoak bihurtuko dira simulakro eguneko hurrenkera bera jarraituz.
- Eskola Txikira jaisteko taulan agertzen den bidea hartuko dute ikasleek eta baita igotzeko ere (barruko eskailerak hartzen dituztenak patiotik joango dira).
- Eskaileretan pegatinak egongo dira norabidea erakutsiz. Kanpoaldean ere taldeen izenak seinaleztatuta egongo dira, sarrerak desberdinduz.
- Klase hasiera, amaiera eta jolastordurako txirrinek 5 minutuko aldea izango dute, bai sartzeko eta bai irteteko ere.
- Taula honetan agertzen dira denbora tarteak eta taldekatzeak:

COVID-19 SARRERAK ETA IRTEERAK - BEHEKO ERAIKINEAN					
BIDEA	TALDEAK	SARRERAK		IRTEERAK	
Larrialdietako eskailerak (hurbilekoak)	2e,2d,2a,2b	Goizean eta Jolastorduan	8.10	Eguerdian Jolastorduan	14.10
Barruko eskailerak	212,209,3a,3b,3e,3d		11.00		11.30
Larrialdietako eskailerak (urrunkoak)	11,12,13, Tekno, Liburutegia	Goizean eta jolastorduan	8.15 11.00	Eguerdian Jolastorduan	14.15 11.30
Larrialdietako eskailerak	1f,1e,1d	Goizean Jolastorduan	8.15	Eguerdian Jolastorduan	14.15
Barruko eskailerak	312,1a,1b,Laborategiak, Kurkudi eta Gorbeia, 104,106		11.05		11.35

● **Goiko eraikinean:**

COVID-19 SARRERAK ETA IRTEERAK - GOIKO ERAIKINA	
BIDEA	TALDEAK
Sarrera nagusitik, ezkerreko eskaileretara	Farmazia, 4A/B, Tekno/Plas, Batx 2A, 2B, 2D

Sarrera nagusitik, eskuineko eskaileretara	Dietetika, 4D/E, Batx 1A, 1B, 1D
--	----------------------------------

b. Geletan

● Eraikin bietan:

- Pasabideetan eta geletan maskara erabiltzeko kartel oroigarriak egongo dira.
- 1,5 metroko distantzia mantentzeko kartel oroigarriak egongo dira pasabideetan eta geletan.
- Maskara jantzita eramango dugu momentu oro.
- Gel hidroalkoholikoa eta papera gela guztietan egongo da.
- Sartzean eta irtetean gelez garbituko dituzte eskuak ikasleek (goizean, jolastorduan, beste gela batetik etortzean...)
- Hautazkoetara mugitzeko ikasleak hormatik joango dira, ilaran eta segurtasun distantza mantenduko dute.
- Klase tarteetan eta bitartean ere leihoak zabalik izango ditugu.
- Aulkiak eta mahaia beti leku berean mantenduko dituzte ikasleek eta bakoitzak berea erabiliko du.
- Banaketa-gelak, Liburutegia ala Topagunea erabili ondoren, norberak bere lekua garbituko du, sartzean eta irtetean, ikasleek eta irakasleok.
- Liburutegiko aforoa murriztuko du arduradunak.
- Gela naturaletan irakasleok gure lekua garbituko dugu erabili ondoren.
- Klase tarte guztietan gelako leihoak zabalik utziko ditu irakasleak.
- Materiala ezin dute partekatu ikasleek.

● Beheko eraikinean:

- Tekno eta Arte tailerretan gel eta papera indartuta (bikoiztuta) egongo da.
- Gomendatzen da etxetik ekartzea 100mlko difusore bat eta zapi bat. Ikasle bakoitzak, jesarri aurretik, garbituko ditu erabiliko dituen mahaia eta aulkia soluzio hidroalkolikoarekin ($\frac{2}{3}$ alkohol, $\frac{1}{3}$ ura. Kontuz, hidrogelak ez dira egokiak gainazalak garbitzeko). Norbera da garbiketa horretako arduradun.
- gorbeia eta Kurkudi geletan higroalkohola sahiestuko dugu baldin eta ikasleek eskuak ahora sartzen badituzte.

● Goiko eraikinean:

- Derrigorrezkoa da etxetik ekartzea 100mlko difusore bat eta zapi bat. Ikasle bakoitzak, jesarri aurretik, garbituko ditu erabiliko dituen mahaia eta aulkia soluzio hidroalkolikoarekin ($\frac{2}{3}$ alkohol, $\frac{1}{3}$ ur). **Kontuz, hidrogelak ez dira egokiak gainazalak garbitzeko.** Norbera da garbiketa horretako arduradun.
- Lanbide Heziketako gela berezietan (laborategiak...) neurri zehatzagoak hartuko dira.

c. Komunetan

- **Eraikin bietan:**
 - Komun guztietan garbiketa-tresnak egongo dira
 - a. Xaboia
 - b. Tapadun zakarrontzia
 - c. Papera
 - Komun guztietan leihoak zabalik egongo dira egun osoan.
- **Beheko eraikinean:**
 - Ikasleen komunak itxita egongo dira. Ikasleak ezin izango dira komunera joan klase tarteetan. Klasea hasita ikaslea zaintza-gelara joango da giltza eske irakaslearen baimenarekin eta zaintzako irakasleak zabalduko dio komuna. Zaintza gelan irakaslerik ez balego, beheko solairuko komunetara joango da.
 - Gorbeia eta Kurkudi ondoan dagoen komuna erabili ondoren neurri bereziak erabiliko dira desinfekzioa bermatzeko.
- **Goiko eraikinean:**
 - Gehienez 3 pertsona egon daitezke komunean, gainerakoak zain geratuko dira kanpoan txanda izan arte, distantzia mantenduz. Komun barruan ezin da txandari itxaron ezta elkarrizketarik ere egin.

d. Patioan:

- **Eraikin bietan:**
 - Partekatzen dugun materiala aurretik eta ondoren garbituko dugu (balioak...), atezainak hau ikuskatuko du.
- **Behekoan:**
 - Patio orduan ilarak egingo dituzte distantzia mantenduz eta komunera joateko gehienez ikasle bakarra egongo da barruan.
 - Eguraldi txarra egonez gero, maila bakoitzak espazio bat izango du lehenetsita ebaluaketa bakoitzean txandakatuz, adibidez:

Maila	Ebaluaketa	Kokapena
DBH 1	1., 2. eta 3. ebaluaketa taldeak txandakatuz doaz	Topagunean
DBH 2		Pinpon aterpean
DBH 3		Aterpean
Udaletxeko laguntza eskatuko dugu ...polikiroldegia...		

- **Goikoan:**

- Patioaz gain, betiko lekuak egongo dira zabalik (liburutegia, galeria). Ikasle-kopurua mugatuko da beharrezkoa bada.

e. Irakasle gela:

- **Behekoan:**

- Irakasle-gelan, zaintza-gela bietan, bilera eta IGE geletan hurrengo neurriak hartuko dira:
 - a. 7 ordenagailu berri jarrita daude guztira irakasleok sakabanatu gaitezen jolastorduan edo lan egiterako orduan ikastetxean.
 - b. Gel hidroalkoholiko, papera eta spray botilak daude gela guztietan.

- **Goikoan**

- Pilaketak saiheste aldera, irakasle-gelan zaintzako irakasleak egongo dira soilik, gainerakoak mintegietan egotea gomendatzen da.
-

f. Jantokian

- **Beheko eraikinean:**

- Hiru txanda egongo dira. Txanda bakoitza ilaran jarriko da eskuak garbitu arte. Ilarak segurtasun-distantzia seinaleztatuta izango du.
- Mahaiak alde zurretik koloreen bidez seinaleztatuta eta esleituta egongo dira eta ikasleek alde zurretik ere jakingo dute zein izango diren euren lekuak. Leku horiek ikasturte osorako izango dira.
- Ikasleen kokapena eta dagokion kolorea gela bakoitzean egongo da iragarrita.
- Mahaietan espazioa eranskailuekin markatuta egongo da segurtasun-distantzia bermatzeko.
- Txanda bateko mahai batek bukatu ondoren, mahai eta aulki horiek desinfektatu egingo dira hurrengo txanda eseri baino lehen.

B Eszenatokian - Mistoan:

a. Eraikin bietan:

- **Kontingentzia-plana ikastetxean era presentzian jarraitzen duguna da.**
- Ikasle eta familiekin komunikazioa era telematikoan jarraitzen duguna izango da.
- Agindutako lanak Calendarren publikatuko ditugu familientzat ikusgai egon daitezen. <https://sites.google.com/barandiaran.biz/ikasleak/egutegiak?authuser=2>
- Erabiltzen dugun plataforman (Classroom, Moodle...) azalpen teorikoa utziko dugu etxeko taldearentzat (tutorial bat, idazki bat, bideo bat, ikasle baten akta...) Alderantziz, azalpen teorikoa klasean eman nahi badugu, ariketak plataforman eskegiko ditugu.

b. Beheko eraikinean:

- Ordutegia bi tartetan banatuta geratuko da: lehenengo hiru saioak eta azkenengo hiru saioak. Era honetan, ikasleak egunero etorriko dira ikastetxera.
- Jolastorduan ez da inor patioan geratuko.
- Astero txandakatuz, azpitaldeak lehenengo tartera ala bigarrenera etorriko dira.

c. Goiko eraikinean:

- Ikasleak bi azpitaldetan banatuta egongo dira, azpitalde bat klasean eta bestea etxean, astero txandakatuko dira.
- Azpitaldeak heterogeneoak izango dira (modalitatea kontuan hartuz).

D Eszenatokian - Konfinamenduan:

2020ko udaberriak aurrekaririk gabeko aldaketak eragin zituen gure gizartean eta

a. Bideodeiak

- Ahozkotasuna euskaraz bermatzeko bideodeiak, bideoak, audioak etab maiz erabiliko ditugu
- Bideodeiak egiteko, zentruak (IKT taldeak) proposatutako tresna erabiliko dugu batez ere: MEET. Besterik erabiliko badugu, klasean lehenbailehen trebatu behar izango ditugu gure ikasleak tresna horretarako.
- Bideodei bat aurreikusita dugunean, Calendarren iragarriko dugu informazio hori familien eskura ere egon dadin.
- Bideodeiak irakasleak proposatuta gertatuko dira. Bideodeietan irakasleak ez du bere irudia erakutsiko beharrezkoa ez baderitzo. PPT, grafikoak, apunteak etab... partekatuko ditu saioan zehar bere pantailan eta ahozko azalpenak emango ditu mikrofonoa erabiliz.
- Ikasleek kamara eta mikrofonoa itzalita izango dute irakasleak besterik ez badu agintzen (azterketa bat, ahozko proba bat, partehartzea...bermatzeko)
- Gehienbat alboko txata erabiliko dugu zalantzak argitzeko ala taldea handia bada, partehartzeko ere bai.
- Klaseko edukiak azalduz bideotutorial bat grabatuta utziko dugu plataforman (Classroom) edota apunteak ere (ikasle batek idatzitako akta...), konektatu ezin izan dutenentzat (eta falta justifikatuta dute).
- Ez dugu elkarrizketa pribaturik izango ikasleekin bideodeietan.
- Bideodeia laburra programatuko dugu sarean baliabideak eta denbora kontrolatuz. 15-20 min nahikoa da saio bakoitzeko.

b. Ikasleekin komunikazioa

- Lanak partekatzeko ikastetxeak proposatzen duen plataforma **G-Suite** da: Classroom, Calendar, Drive...
- **Moddle** software askerako formakuntza eskainiko dugu IKTkoen eskutik interesa duten irakasleentzat. Besterik erabiliz gero, gure ikasleak trebatu beharko ditugu lehenengo.

- Helbide elektronikoko korporatiboa erabiliko dugu beti ikasleekin **barandiaran.biz** domeinukoa. Ikasleek ere domeinu bereko helbidearekin erantzungo digute.

c. Gurasoekin komunikazioa

- **Korreo korporatiboa** izango dute gurasoek gurekin kontaktatzeko eta guk ere gure barandiaraneko domeinukoa erabiliko dugu soilik.
- **Telefonoz** deitu behar izatekotan #31# aurretik jarriz gure zenbakia ezkutuan mantenduko da.
- Asteroko jarraipena egingo dugu **excel** formatu bateratu bat erabiliz. Jarraipen hori falta diren komentarioak egiteko erabiliko dugu: kasu deigarriak, arazo bereziak... gurasoei helarazteko
- “Faltak” **Ikasgunen** islatuko ditu irakasle bakoitzak gurasoek ikusgai izan ditzaten.
- **Calendar** gure saio guztietako plana islatzeko erabiliko dugu. <https://sites.google.com/barandiaran.biz/ikasleak/orri-nagusia?authuser=2>
-

d. Lanzama

- Lanaren epea DBHko ikasleentzat astebetekoa izango da luzeen jota.
- Ahal dela, saiorako lana azaldu eta aginduko dugu, ez dugu etxeko lanik maiz eskatuko.
- Bai konexioa eta bai lana egiteko agindua dagokigun erreferentzia orduan egingo dugu beti, beste irakasle baten ordua zapaldu barik .
- Classroom ala erabiltzen dugun plataforman klaseko azalpena emanda utziko da grabatuta ala apunte gisa konektatu ez diren ikasleentzat. Funtsezko alderdiak landuko ditugu hezkuntza telematikoan eta ez gehiago.

7. LORTUTAKO HELBURUEN EBALUAZIOA

1. Segurtasun arauak bete dira.
2. Musukoak, garbiketa produktuak... eskuragarri daude denbora osoan.
3. Covid-ikasle ordezkari taldea sortu da eta bere lana burutu du.
4. Ikas komunitate osoak ezagutzen du ikastetxeko partaideen artean dauden komunikazio tresnak eta arautegia.
5. Programazioetan hiru eszenatokiak agertzen dira. Kalifikazio eta ebaluazio irizpideak ere egokitu dira. Metodologia hiru eszenatokietan zehaztuta dago.
6. Kurtso hasierako diagnostikoa egin da eta jasotako emaitzen arabera neurri zuzentzaileak martxan jarri dira.
7. 2. eta 3. agertokietan inkesta pasatuko zaie familiei eta ikasleei diseinatutako lan-metodologia ebaluatzeko eta neurri zuzentzaileak hartzeko hala badagokio. Galdera bereziak egingo dira Arreta berezia duten ikasleei.

8. LAGUNTZA ETA JARRAIPEN BATZORDEA:

JARRAI PEN BATZORDEA	
ZUZENDARIA	<ul style="list-style-type: none"> ● Estibaliz Sanz ● Gurutze Lauzirika
PBko MINTEGI BURUAK eta IRAKASLE ARDURADUNAK	<ul style="list-style-type: none"> ● Jose Ignacio Rodriguez (Goian) ● Juan Luis Markaida (Behean) ● PBko kideak
BERRITZEGUNEKO ERREFERENTEA	<ul style="list-style-type: none"> ● M^a José Soto
IKUSKARIA	<ul style="list-style-type: none"> ● Sira Ayarza
OOGko KIDEA	<ul style="list-style-type: none"> ● Berta del Campo